euskaldunon Egunkaria

IGANDEA

2002ko azaroaren 3a – XIII. urtea – 3.698. zenbakia – Salneurria: 1,10 euro

ELKARRIZKETA **AISEL TUGLUK** DEHAP ALDERDI KURDUKO ZERRENDABURUA TURKIAKO LEGEBILTZARRERAKO

# «Beste alderdiek ez dute kontuan hartzen kurduen sufrimendua»

**KURDUAK.** «Legebiltzarrak kurduen eskubideen aldeko neurriak iragarri zituen, baina ez dugu oraindik onurarik jaso»

**MEHATXUAK.** «Militarrak hainbat herritara joan dira eta beraien kontrolpean bozkatuko dutela ohartarazi diete herritarrei»




MLADEN ANTONOV/EPA

Ecevit lehen ministroaren alderdiak azken hautes-ekitaldia egin zuen atzo Ankaran.

HAUTESKUNDEAK TURKIAN

## Alderdi islamiar moderatua da faborito gaur irabazteko

Turkiako 550 legebiltzarkide hautatuko dituzte gaur egingo diren bozetan. Inkesten arabera, Justizia eta Garapenerako alderdi islamiarra da faborito botoen %33rekin. Egun legebiltzarkiderik ez duen Dehap Herri Alderdi Demokratiko kurduak ordezkaritza lortuko du legebiltzarrean eta Bulent Ecevit lehen ministroaren alderdia kanpoan geldi liteke. Nazioarteko begirale ugari izango dira bertan, haien artean Koldo Gorostiaga europarlamentari abertzalea. /16-17

ELKARRIZKETA



**MIXEL BERHOKOIRIGOIN**
ELBko arduraduna

«Laborantza Ganbera ukatzen badute, ondorioak atera beharko dira» /14

TORTURA

## Oraindik torturatu egiten dela eta «Ertzaintzari ere» eragiten diola salatu du OMCTk

Torturaren Aurkako Mundu erakundearen zuzendari Eric Sottasek salatu du Espainian torturatu egiten dela gaur egun, eta jokabide hori ez dela «Guardia Zibilarena eta Espainiako Poliziarena soilik, Ertzaintzari ere» eragiten diola iritzi dio. Avui egunkariari emandako elkarrizketan, Sottasek dio, praktika hori ez dela sistematikoa. /8

HONDAKINEN KUDEAKETA

Erraustekoen kontra kontzentrazioa egin dute ekologistek Bilbon /6-7

ITALIA

Nahigabeko hilketa anitzagatik ikerketa zabaldu dute, lurrikarak suntsitutako eskolaren aferan /18

GEHIGARRIAK



/erdiko orrialdeetan





